

XEDAPEN OROKORRAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

926

EBAZPENA, 2025eko otsailaren 17koa, Euskadiko Prezioen Batzordeko lehendakariarena, auto-taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoa emateko Euskal Autonomia Erkidegoko udal batek aurkeztutako 2025. urterako tarifak onartzekoa.

Euskadiko Prezioen Batzordeak, 2025eko otsailaren 13an egindako bileran, erabaki bat hartu zuen, eta, jende guztia jakinaren gainean egoteko, segidan transkribatzen da haren xedapenak.

ERABAKIA

Euskal Autonomia Erkidegoko udal batek eskaria aurkeztu du Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Zerbitzu Zuzendaritzan, auto-taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoaren 2025. urterako tarifak berrikusteko.

Hiri barruan bidaiariak auto-taxiz garraiatzeko tarifek prezioak kontrolatzeko arautegia bete behar dute, «autonomia-erkidegoen eremuan baimendutako prezioen» modalitatean, hala ezarrita baitago Zerga-arloko eta Jarduera Ekonomikoa Sustatu eta Liberalizatzeko ekainaren 7ko 7/1996 Errege Dekretuaren 16.4 artikuluan (ekainaren 8ko BOE, 139. zk.).

Euskadiko Prezioen Batzordeak du prezioen kontrolaren inguruko eskumena, Euskadiko Prezioen Batzordea arautzen duen otsailaren 2ko 35/2010 Dekretuarekin bat etorritik (otsailaren 16ko EHAA, 31. zk.) eta Baimendutako prezioak eta jakinarazitako prezioak berrikusteko prozedura ezartzen duen Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2010eko ekainaren 15eko Aginduari jarraituz (uztailaren 6ko EHAA, 128. zk.).

Aipatutako arauen helburua da nolabaiteko ekonomia-oreka bat lortzea, premiazkoa baita prezioak ezartzeko mekanismoak kontrolatzea, bizitzaren kostua aintzat hartuta.

2025. urterako aurkeztu diren tarifak berrikusteko espedienteaz aztertu ondoren, tarifak nahikotzat jotzen dira, eta zerbitzua emateagatikosten egituraren barruan sartzen diren kontzeptuetara egokiturik daudela uste da.

Hori guztia kontuan hartuta, Euskadiko Prezioen Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko honako udal honek auto-taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoa emateko aurkeztutako 2025. urterako tarifak onartzea, Balio Erantsiaren Gaineko Zerga barne dela:

Leioako Udala:

Tarifa 1 (1)			Tarifa 2 (2)		
Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
6,51	1, 3885885	20,67	7,09	1,5358642	26,92

(1) Tarifa hau lanegunetan ezarriko da 07:00etatik 22:00etara.

(2) Tarifa hau igandeetan, autonomi eta udal araudietan aipatzen diren jai egunetan, eta larunbatetan 13:00etatik aurrera erabiliko da. Lanegunetan 22:00etatik 07:00etara ere erabiliko da.

(3) Gutxieneko tarifa km 1,5 barne hartzen du.

Bigarrena.— Erabaki honek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez daiteke EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 17a.

Euskadiko Prezioen Batzordeko lehendakaria,
JAKES AGUIRREZABAL IRIBAR.